

Supermilitantea lurperatu



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Saltseroa, konpromiso handiko pertsona edo supermilitantea, herri guztietan bada halako jendea eta horrelakoak izan gara gu ere. Ukatua den herri baten parte sentitzen ginen eta gauzak aldatu nahi genituen. Naturalki hasi ginen hemengo asanbladatan, hango grebetan zein besteko manifestazioetan; eta naturalki eman genion ere gure indar eta denbora amesten genuen aldaketa bultzatzeari. Gatazka armatua- ren azken hamarkada zen.

Azken aldian, garai haiez mintzo ziren hainbat lagunekin izan naiz: ez hain gazteek nostalgiaz, garaiko pasioari erreferentzia egiten zioten; orduko konpromisoaz eta epikaz liluraturik ari ziren berriz gazteagoak.

Ilegalizazio, atentatu, atxiloketa eta herrian sortu nahi genituen bilgune eta ekimen berrien zurrunbiloan oroitzen dut garai hura. Ezagutu genituen pertsona berriak eta haiekin mamitu ideiak. Pasatu ziren alaitasun-larritasunak, bizi arrakastak eta egin gure akatsak. Hala ere, orain atzera begiratzuz, ez dut uste orduko jardunbideak guretzat zein gure erakundeentzat hain onuragarri izan zirenik.

Nago ez ote genukeen
hobe gure barruko
supermilitantea lurperatu,
norbere burua orekatu eta
taldeetan parte hartzeko
ditugun erak aldatzea,
gidaritzak
garai hura bizi izan
ez zutenei utzita

Helburu kolektiboa lehenetsi genion helburu pertsonalari eta denbora luze eman genion militantziari. Inongo lanetan ikasiko ez genituen trebetasunak geureganatu genituen, gustura egin genuen eta aberasgarria izan zen. Baina pertsonalaren eta kolektiboaren arteko desorekan hazi ginen.

Kanporako begirada asko landu genuen baina gutxi barrukoa. Aktualitateari erantzun beharraren beharraz, gai-zerrenda amaigabetako eztabaida

azkarretan, herrian publikatu beharreko deialdi edo mezuen produkzioan zentratu ginen. Ez genuen ikasi ordea taldean ikuspegiak konpartitzen, ekimenak elkarrekin eraikitzen eta lagun baliotsuak galdu genituen bidetik.

Eutsi genion eta aukera berriak irekitzeko gai izan ginen, baina esango nuke orain posible dela gureak baino osasungarriago diren militantzia ereduak garatzea.

Besteen artean: pertsonalaren eta kolektiboaren arteko oreka zainduz, denbora laburragoa hartuz eta jende gehiagori parte hartzeko aukera zabalduz. Arlo batzuk *slow* erritmoan eztabaidatuz, sakondu eta ekinbideak eraikitzeko denbora hartuz. Talde lanean ikasiz eta ahots gehiagori toki eginez. Burua bakarrik ez eta gorputza ere landuz, sentimenei eta sormenari toki emanaz...

Horretarako, nago ez ote genukeen hobe gure barruko supermilitantea lurperatu, norbere burua orekatu eta taldeetan parte hartzeko ditugun erak aldatzea, gidaritzak garai hura bizi izan ez zutenei utzita. ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA 2019

URTARRILAK 24 MARTXOAK 28

BAT-BATEKO 12 TALDE

IDATZIZKO 16 TALDE

12 KANPORAKETA, 3 FINALURREKO ETA FINALA

280 PARTE HARTZAILE

www.bertsozale.eus/argia

Babesle nagusiak:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Vital
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

LABORAL Kutxa

udapa FACIL

artepan

ARGIA